# EUSKO JAURLARITZAK ETA DONOSTIAKO UDALAK POLLOEKO MAUSOLEO FRANKISTAN LURPERATUTAKO GUDARI ERREPUBLIKARRAK OMENDU DITUZTE

- **Identifikatutako 17 milizianoen izenak dituen plaka batek Polloe hilerrikoko mausoleo frankistan lurperatutako gudari errepublikarrak gogorarazten ditu, 'Duintasuna' eskulturaren erreplika baten ondoan**
- **Biktimen hogeita hamar bat senide izan dira memoria eta omenaldi ekitaldian**

Vitoria-Gasteiz, 2022/09/12

**José Antonio Rodríguez Ranz**, Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide, Memoria eta Lankidetzako sailburuordea, eta **Eneko Goia**, Donostiako alkatea, Polloe hilerriko mausoleo frankistan lurperatutako errepublikanoen senideekin batera, izan dira gaur Donostiako kanposantuan egindako ekitaldiaren buru.

Gaur goizeko ekitaldia bi erakundeen eta familien arteko akordioaren emaitza da, eta helburua du tokiaren esanahia gaurkotzea eta mausoleo horretan lurperatutako borrokalari errepublikarren oroimena duintzea; mausoleo hori matxinatuen gorpuzkiak gordetzeko eta ohoratzeko eraiki baitzen. Horrela, gaurtik aurrera, mausoleoaren ondoan jarritako plaka batek, bertan lurperatutako 17 milizianoren izenekin, gogorarazten ditu eta Iñigo Arregi eskultorearen 'Duintasuna' eskulturaren erreplikak osatzen du memoriarako konposizioa.

Hogeita hamar bat senide bertaratu dira ekitaldira eta beraiekin bateran izan dira: **Aintzane Ezenarro**, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuko zuzendaria – Gogora; **Ane Oyarbide,** Donostiako Udaleko Elkartasun eta Eskubide Zibiletako zinegotzia eta Udaleko **udalbatzako kideak**; **Julen Arzuaga** eta **Ion Gambra** Gogoraren zuzendaritza kontseiluko kideak; **Jon Hernández** legebiltzarkidea.

**Eneko Goia** alkateak, bere hitzaldian, nabarmendu du "lekuaren esanahia gaurkotzerakoan zorrak kitatzen jarraitzen dugula gure askatasunen eta gure hiriaren alde borrokatu zutenekin. Horrela, memoria historikoaren ariketa bat egiten dugu toki honi dagokion duintasuna itzultzeko, eta frankismoak gure herrian egindako kaltea gogoratzeko eta konpontzeko espazioak berreskuratzen jarraitzen dugu".

**Jose Antonio Rodríguez Ranz** sailburuordeak esan du aurrerantzean lekua ez dela mausoleo frankista bat eroritakoen omenez, baizik eta "memoria demokratikoaren sinbolo" bihurtu dela.

"Nazioarteko zuzenbidearen printzipioak berresten ditugu, giza eskubideen urraketei eta urraketa horien biktimei dagokienez. Egia, justizia, errekonozimendua eta erreparazioa ere bada, gaurko ekitaldia".

Halaber, "herri gisa Gerra Zibilaren eta diktadura frankistaren biktimekin dugun konpromisoa berresten dugu, memoria demokratikoarekin eta printzipio etiko eta demokratikoekin dugun konpromisoa, eskubideen urraketen aurrean eta totalitarismo zahar eta berrien benetako mehatxuaren aurrean".

Eusko Jaurlaritzak, Gogora Institutuaren bitartez, eta Udalak, biktimen familiekin adostu ondoren, orain arte identifikatutako 17 milizianoen izenak jasotzen zituen plaka bat jartzea erabaki zuten, 'Duintasuna' eskulturaren ondoan. Elgoibarko eta Urduñako Duintasunaren Kolunbarioak buru dituzten eskulturen bi metroko garaierako erreplika.

Udalak eta Gogorak sustatuta, Aranzadi Zientzia Elkarteak egindako ikerketa historikoaren eta aztarnen egoeraren prospekzioaren ondoren hartu zen lekuari esanahiz aldatzeko erabakia. Ikerketa horietatik ondorioztatu baitzen ezinezkoa dela mausoleo horretan lurperatutako gutxienez 17 biktima errepublikarren gorpuzkiak identifikatzea eta gerora berreskuratzea. Kalkuluen arabera, mausoleo frankista horretan 200 pertsona inguruaren gorpuzkiak daude ehortzita.

**Ehortzitako pertsonak**

Donostiako Udalak eskatuta egindako ikerketa historikoak ondorengo 17 gudari errepublikarren gorpuzkiak 1939an eraikitako mausoleoan lurperatu zirela dokumentatu ahal izan du.

1936ko uztailaren 22tik 25era hil ziren guztiak, matxinatuek Donostiako hiriburua militarki okupatu aurretik izandako borroketan.

| | **Izena** | **Jaioterria** | **Bizilekua** | **Filiazioa** |
|---|---|---|---|---|
| **1** | Pedro Arriola San Pedro | Eibar | Eibar | Milizia |
| **2** | Severiano Asarta Imaz | ------- | Donostia | PCE |
| **3** | Narciso (de) Santos Herrero | Pinarejos (Segovia) | Donostia | CNT |
| **4** | Lorenzo Echarri Isasa | Donostia/ San Sebastián | Bilbo | PCE |
| **5** | Marcos Gallurralde (Gallaralde)Elejalde | Marañón (Nafarroa-Navarra) | Bilbo | CNT |
| **6** | Camilo Ibáñez Azcoaga | Vitoria-Gasteiz | Arrasate - | UGT |
| **7** | Manuel Inoriza Sagarminaga | Galdames | Galdames | PCE |
| **8** | Francisco Irazabal Sáez | Gasteiz | Bilbo | UGT |

900 840 111
EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARI EZ
NO A LA VIOLENCIA CONTRA LAS MUJERES

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **9** | Álvaro Izurza Pascual | Iruña | Bilbo | CNT |
| **10** | José Lage Iza | Guitiriz (Lugo) | Donostia | Milizia |
| **11** | Luis Larrea López de Ipiña | Gasteiz | Bilbo | UGT |
| **12** | Ambrosio Narvaiza Sarasqueta | Eibar | Eibar | Milizia |
| **13** | Pedro Olmedo Paumero | Arrasate | Arrasate | Milizia |
| **14** | Clemente Queipo | A Coruña (A Coruña) | A Coruña (A Coruña) | ----- |
| **15** | Eusebio Serrano Álvarez | Palencia (Palencia) | Balmaseda | CNT |
| **16** | Benito Uranga Balanzateg(u)i | ----- | Arrasate- | Milizia |
| **17** | Eloy Zufiaurre García | Altsasu (Nafarroa) | Altsasu (Nafarroa) | Milizia |

# EL GOBIERNO VASCO Y EL AYUNTAMIENTO DE DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN HOMENAJEAN A LOS COMBATIENTES REPUBLICANOS INHUMADOS EN EL MAUSOLEO FRANQUISTA DE POLLOE

- **Una placa con los nombres de los 17 milicianos identificados recuerda a los republicanos inhumados en el mausoleo franquista del Cementerio Polloe, junto a una réplica de la escultura 'Duintasuna' que completa el conjunto de memoria**
- **Una treintena de familiares han asistido al acto de memoria y homenaje**

Vitoria-Gasteiz, 12/03/2023

**José Antonio Rodríguez Ranz**, viceconsejero de Derechos Humanos, Memoria y Cooperación del Gobierno Vasco, y **Eneko Goia**, alcalde de Donostia / San Sebastián, junto con familiares de los republicanos inhumados en el mausoleo franquista de Polloe han encabezado el acto celebrado en el camposanto de Donostia.

El acto de esta mañana, fruto del acuerdo entre ambas instituciones y familias, tiene como objetivo contribuir a resignificar el lugar y dignificar la memoria de combatientes republicanos inhumados en ese mausoleo, erigido para albergar y honrar restos de combatientes sublevados. De esta forma, desde hoy, una placa, colocada junto al mausoleo con los nombres de 17 milicianos inhumados en el lugar, les recuerda y la réplica de la escultura '*Duintasuna'*, del escultor Iñigo Arregi, completa el conjunto de memoria.

Una treintena de familiares de las víctimas han asistido al acto, junto a: **Aintzane Ezenarro**, directora del Instituto de la Memoria, la Convivencia y los Derechos Humanos – Gogora; **Ane Oyarbide**, concejala de Solidaridad y Derechos Civiles del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián y **miembros** de la corporación donostiarra; **Julen Arzuaga** y **Ion Gambra** del Consejo de Dirección de Gogora y el parlamentario **Jon Hernández**.

El alcalde **Eneko Goia**, en su intervención, ha destacado que "con esta resignificación seguimos saldando deudas con aquellos que lucharon por nuestras libertades y las de nuestra ciudad. Realizamos así un ejercicio de memoria histórica para devolver la dignidad que le corresponde a este lugar, y continuamos recuperando espacios para recordar y reparar el daño que el franquismo perpetró en nuestro pueblo".

El viceconsejero **Jose Antonio Rodríguez Ranz** se ha referido a que en adelante el lugar deja de ser un mausoleo franquista en honor de los caídos para convertirse en "símbolo de la memoria democrática".

900 840 111
EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARI EZ
NO A LA VIOLENCIA CONTRA LAS MUJERES

“Reafirmamos los principios del derecho internacional en relación con las violaciones de los derechos humanos y las víctimas de estas vulneraciones. Éste es también un acto de verdad, de justicia, de reconocimiento y reparación”.

“Reafirmamos también nuestro compromiso como país con las víctimas de la Guerra Civil y la dictadura franquista, con la memoria democrática y los principios éticos y democráticos frente a las vulneraciones de derechos y la amenaza real de totalitarismos de viejo y nuevo cuño” ha añadido.

Gobierno Vasco, a través de Gogora, y Ayuntamiento tomaron la decisión, tras haberla acordado con las familias de las víctimas, colocar una placa con los nombres de los 17 combatientes identificados hasta la fecha, junto a la escultura ‘Duintasuna’. Réplica de dos metros de altura de las esculturas que presiden los Columbarios de la Dignidad de Elgoibar y Orduña.

La decisión de optar por resignificar el lugar se tomó tras la investigación histórica y la prospección del estado de los restos realizada por la Sociedad de Ciencias Aranzadi, impulsada por Ayuntamiento y Gogora. De ellas, se concluye que resulta inviable la posibilidad de poder establecer las identificaciones y posterior recuperación de los restos de las, al menos, 17 víctimas republicanas inhumadas en este mausoleo. Se estima que, en total, este mausoleo franquista alberga los restos de unas 200 personas.

**Personas inhumadas**

La investigación histórica llevada a cabo a solicitud del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián, ha podido documentar que los restos de los siguientes 17 combatientes republicanos fueron inhumados en el mausoleo construido en 1939.

Todos ellos murieron, entre el 22 y el 25 de julio de 1936, en los combates que precedieron a la ocupación militar de la capital donostiarra por parte de los sublevados.

| | Nombre | Natural de | Vecino de | Filiación |
|---|---|---|---|---|
| **1** | Pedro Arriola San Pedro | Eibar | Eibar | Milicias populares |
| **2** | Severiano Asarta Imaz | ------ | Donostia/ San Sebastián | PCE |
| **3** | Narciso (de) Santos Herrero | Pinarejos (Segovia) | Donostia/ San Sebastián | CNT |
| **4** | Lorenzo Echarri Isasa | Donostia/ San Sebastián | Bilbao | PCE |
| **5** | Marcos Gallurralde (Gallaralde)Elejalde | Marañón (Nafarroa-Navarra) | Bilbao | CNT |
| **6** | Camilo Ibáñez Azcoaga | Vitoria-Gasteiz | Arrasate - | UGT |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | | | Mondragón | |
| **7** | Manuel Inoriza Sagarminaga | Galdames | Galdames | PCE |
| **8** | Francisco Irazabal Sáez | Vitoria-Gasteiz | Bilbao | UGT |
| **9** | Álvaro Izurza Pascual | Pamplona/Iruña | Bilbao | CNT |
| **10** | José Lage Iza | Guitiriz (Lugo) | Donostia/ San Sebastián | Milicias populares |
| **11** | Luis Larrea López de Ipiña | Vitoria-Gasteiz | Bilbao | UGT |
| **12** | Ambrosio Narvaiza Sarasqueta | Eibar | Eibar | Milicias populares |
| **13** | Pedro Olmedo Paumero | Arrasate-Mondragón | Arrasate-Mondragón | Milicias populares |
| **14** | Clemente Queipo | A Coruña (A Coruña) | A Coruña (A Coruña) | ----- |
| **15** | Eusebio Serrano Álvarez | Palencia (Palencia) | Balmaseda | CNT |
| **16** | Benito Uranga Balanzateg(u)i | ----- | Arrasate-Mondragón | Milicias populares |
| **17** | Eloy Zufiaurre García | Altsasu (Nafarroa-Navarra) | Altsasu (Nafarroa-Navarra) | Milicias populares |